

EUSKARA. EHU, NUP, Mondragon Unibertsitatea, UEU, SEI eta NUETS dira bultzatzaileak

Soziolinguistika Institutua Klusterra abiatzeko lehen urratsa egin dute

Elkarrengandik oso ezberdinak diren erakunde eta enpresak biltzeko aukera emango du

Eider Goenaga | DONOSTIA

Euskal Soziolinguistika Institutua osatze bidean beste urrats bat egin zuten iragan ostiralean, Zamudion. Soziolinguistika Institutua Klusterra sortzeari buruzko SIKeraiki lan jardunaldia egin zuten bertan; eta jardunaldien antolatzaileak honako hauek izan ziren: Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Nafarroako Unibertsitatea Publikoa (NUP), Mondragon Unibertsitatea, Nafarroako Udal Euskara Teknikarien Sarea (NUETS) eta SEI elkarteak. Laguntzaile, berriz, Ezagutzaren Klusterra eta EHUko Euskara Errektoreordetza izan zituzten.

EGUNKARIARI SEI elkarteko lehendakari eta jardunaldiako koordinatzaile Iñaki Markok azaldu dionez, iaz SEI antolatutako sinposioak izandako «harrera onaren» ondorio izan zen aipatutako erakundeen parte-hartzea.

Soziolinguistika institutua bultzatzeko, lankidetzak akordioa sinatuta dute guztiek, eta klusterraren «izaera juridiko» ematea hobetsi dute oraingoz. «Ez du esan nahi nahitaez kluster moduan antolatuko dugunik, baina horren inguruan lan egiten hasi gara eta horretan jarraituko dugu. Zamudioko jardunaldian hori zen helburu nagusia», adierazi zuen Markok.

Helburuak eta bitartekoak

Hain zuzen ere, iragan ostiraleko lan jardunaldiaren lehen atala iazko sinposioan zehaztutako helburuak eta asmoak gogoratzea eta klusterraren definizioa jasotzea izan zen, bi ideia horiek nola uztartu daitezkeen aztertzeari begira. Horretarako, Ezagutzaren Klusterreko ordezkari batek beren esperientziaren berri eman zien, hori baita sustapen taldea osatzen duten kideek hartu duten eredia.

Klusterrak, besteak beste, «aukera ematen du oso ezberdinak diren erakundeak biltzeko»; eta klusterraren eredu juridikoa kontuan hartzeko puntu garrantzitsutzat jo du hori Iñaki Markok. «Gainera, Euskal Herriak bizi duen zatiketa instituzionala ere kontuan hartu dugu; adibidez, soziolinguistika institutua unibertsitate bati lotuz gero,



MIREN SAEZ
SEI elkarteak iaz Gasteizen egindako sinposioa.

DEFINIZIOA

Zer da klusterra?

Interes eta helburu berak dituzten enpresa eta erakundeen elkarte bat da klusterra. Bakoitzak bere izaera gordetzen du, baina hainbat arlotan elkarlanaren bidez funtzionatzen dute. Horrela, enpresa edo erakunde bakoitzak bere aldetik lortu ezin dituen helburuak elkarlanaren bidez lor daitezke. Eredu juridiko hau soziolinguistikaren alorrera eraman nahi dute, Ezagutzaren Klusterrak duen esperientzia eredutzat hartuz.

parte-hartzeari mugak jartzen baitzaizkie», gaineratu zuen.

Horrez gain, Zamudioko jardunaldiaren ondorioetako bat beste erakundeekin «zubiak

eraiki» beharra nabarmentzea izan zen; eta hori izango da hurrengo urteari begira egin beharreko lanetako bat. «Bate-tik, klusterraren inguruko azter-

keta juridiko bat eskatuko diogu profesional bati; bestetik, jardunaldian esandakoa bilduko dugu; eta, bitartean, beste erakundeekin kontaktuak egingo ditugu, zabalpen lana egiten hasteko». Baina, zabalpen lan hori «gaia benetan sentitzen dutenen artean» egitea ezinbestekotzat jo du Markok, inplikazio eta lan handia eskatzen baitu proiektuak.

Lehen zubiak ostiralean hasi ziren eraikitzen, hainbat erakunde eta enpresa izan baitziren Zamudion: Elhuyar, Eusko Ikaskuntza, Fagor, Kontseilua, HABE, Elay S.A. eta HPS.

LANKIDETZA PROTOKOLOA

Proiektuaren sustapen taldea osatu dute

EHUko Soziologia Sailek, Mondragon Unibertsitateko Humanitate fakultateak, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Zientzien fakultateak, UEUko Soziolinguistika Sailak, SEI elkarteak eta Nafarroako Udal Euskara Teknikarien Elkarteak lankidetzak sinatu dute, Euskal Soziolinguistika Institutua osatzeko bidean. Sinadura ekitaldia aurtengo maiatzean egin zuten, Iruñean.

Aipatutako erakundeek, horrela, hainbat konpromiso hartu dituzte; besteak beste, Insti-

tutuaren sorrera bultzatzeko taldea osatzea: «Lankidetzak protokolo honen bitartez, berau sinatzen dugunok Soziolinguistika Institutuaren proiektuaren garapenerako Talde Sustatzaile gisa eratzeko hitzartu dugu».

Ildo horretan, taldearen helburua «Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen sinposioarekin abiatutako lan ildoari jarraipena ematea eta soziolinguistika institutu baten diseinua prestatzera eta gauzatzera iristeko behar diren ekimenak burutzea eta bitartekoak jartzea» da.

Klusterraren eredia hobetsi dute, oraingoz, institutuaren diseinua egiteko; eta horren inguruko gogoeta eta sakontze lana egitea da protokoloan hitzartutako puntuetako bat. Ostiralean egin zuten urrats hori.

KONTSEILUA

'Bai Euskarari' herriz herri gauzatzeko mintegia egingen da Uztaritzen

Aitor Renteria | BAIONA

Euskal Konfederazioak eta Kontseiluak duela hiru urte Euskal Herri osoan abiatutako *Bai Euskarari* akordioa herriz herriz garatzeko azterketari ekin diote. Horren kariatara larunbat honetarako mintegi bat antolatu dute; Uztaritzeko Lapurdi aretoan izanen da, 10:00ak eta 12:30ak artean. Astebete berantago, azaroaren 24an, beste mintegi bat egingen dute, Donapaleuko Frantsizkanoen Etxean, tenore bertsuetan.

Bai Euskarari akordioa izenpetu zenetik, akordio eta engaiamendu prozesu konplexu bat eratu eta gauzatu dute Ipar Euskal Herriko gizarte eragileek. «Oraingo helburua *Bai Euskarari* akordioa herrietan zehaztea da», adierazi du Paulo Arzelus Euskal Konfederazioko ardura-dunak. «Akordioa herrietara eramateko, baitezpadakoa da lekuan lekuko euskalgintzak prozesu hau bultzatzea; gehiago oraindik, prozesuaren motorra izatea», dio Arzelusek, «baina bertze bi protagonistak Herriko Etxeak eta gizarte eragileak dira; eta horien engaiamendua gauzatu behar dugu».

Sara eredu

Hiru zangoko egituraketa hori antolatzeko egitura eratzen ari dira Euskal Konfederazioa eta Kontseilua, prozesu horrekin bat egin nahi duten herri eta eskualdeekin. Uneotan, hamar esperientzia pilotu abiatu badira ere, bakarra ari da gauzatzen, Saran (Lapurdi).

Mintegian, Pantxika Bergarak Sarako Jarrailpen Batzordearen balorazioa egingen du; eta bertan izanen dira Zigor Etxeburua *Bai Euskarari* akordioa herrietan kanpainako arduraduna eta Elena Xurio Kontseiluko teknikaria ere. Euskal Konfederaziok euskalgintzan diharduten Iparraldeko eragile guztiak mintegira gomiatu ditu, «elkarrekin azterketa sakon bat egin eta prozesua herri eta eskualde orotara zabaltzeko».